

Bere onera itzuli da nabarmen banka-produktu nagusien komertzializazioa, hipoteken kasuan **errekorrak gaindituta**

Kutxabankek 160 milioi euroko irabazia izan du, hornidurak 277,4 milioirekin sendotu ondoren

- Hipoteka maileguetan 1.015 milioi euro sinatu dira, 2019ko garai berean baino % 40 gehiago, Kutxabankek hiruhileko batean izan duen kopururik garaiena
- Enpresei aktibo finkorako bideratu zaien finantzazioa bikoiztu egin da, Covid-19ren haritik abaletan eman diren ildo-publikoengatik
- Inbertsio fondoek merkatuan duen lidergoari eutsi dio, urte osoan harpidetza-kopuru handiena lortu duen erakundea baita, guztira 1.193 milioi euro
- Berankortasuna % 2,5era murriztu du, alorreko txikienean artean da beraz, 2020an zehar oinarriko 45 puntu hobetu eta gero
- Krisiaren ondorioei aurre egiteko abiapuntu sendoan dago, kaudimen ratioa % 17,5koa izanik, finantza-alorreko buruan

2020ko urriaren 29an. Kutxabank Taldeak **160 milioi** euroko irabazi garbia lortu du urteko hirugarren hiruhilekoan, iaz garai berean baino % **40,1** gutxiago.

Pandemiak sortu duen ziurgabetasun egoeran, Kutxabank taldeak **hornidurak indartzen** jarraitzerakoan, zuhurtziazko irizpidea ezarri du berriro. 2020ko lehen bederatzi hilabeteetan, zuzkiduretara **277,4 milioi** euro bideratu diru, 2019ko irailera arte jarritakoak baino **146 milioi** gehiago.

Negozioaren bilakaerak osasun-krisialdiaren eraginengatik erabat baldintzatuta jarraitzen du. BPGak eta langabeen kopuruak aurrekaririk gabeko gainbehera jasan dute. Finantza merkatuetan berebiziko eragina dute lurrunkortasun handiak eta ziurgabetasunak eta, horrez gain, interes tipoek murrizten jarraitzen dute, aldi baterako iragarpen ezkorrekin, gainera.

Testuinguru honetan, banka-jardueran urteko bigarren hiruhilekoan sumatu zuen joera positiboa baieztatu ahal izan du Kutxabankek, 'normaltasun berria' abiatu eta gero. Izan ere, banka-produktu nagusien komertzializazioak bilakaera positiboa izan du hiruhileko honetan, atal batzuetan **historikoa** ere izan dela esan liteke, Kutxabankek zituen aurreikuspen onenak gainditu baititu.

Hori jazo da hipoteka-maileguekin. Hipoteka berrien produkzioan, hiruhileko batean sekula izan duen emaitzarik onena lortu du Kutxabankek, **errekorra**, jarduera honetan **1.015 milioi euro** sinatu ostean, iaz hiruhileko berean baino % **39,6** gehiago. Gainera, uztailean gainditu egin zen **2019ko maiatzean** jarritako langa historikoa. Emaitza hauen haritik, urtea abiatzean **Covid-19ren aurretiaz ipinitako helburuak** betetzeko bidean dela uste du erakundeak.

Kontsumorako maileguen hazkundera ere aipagarria izan da hiruhileko honetan, iaz garai berean hazitakoa baino % **3** gehiago igo baitira. Gainera, **aseguruen** salmentarengatik lortutako sarrerak % **4** hazi dira.

2020. urte osoan gertatu bezala, Kutxabank Gestioneak inbertsio fondoan merkaturan **harpidetzen rankingaren buruan** jarraitu du. Irailaren amaierarako, Taldeak (Kutxabank Gestioneak eta Finekok) guztira **1.193 milioi euro** bereganatu zituen. Halaber, **zorro delegatuen** ereduarekin kudeatutako aktiboen bolumena % **11,6** hazi da, iazko iraileko datuekin alderatuta.

Honela, bere **merkatu-kuota % 6,36raino** hazi da 2020an, guztira oinarriko 61 puntu. Beraz, fondoan kudeaketan **bostgarren talde** handiena da, merkatuak bere kudeaketa-ereduan duen konfiantzaren erakusle.

Pentsio Planetan ere bolumen handiena bereganatu duen Taldea izan da, urtean zehar % **7,95** hazi eta **1.448 milioi eurora** iritsita. **Aurreikuspeneko produktuetan**, ondare handiena kudeatzen duen **laugarren Taldea** da Kutxabank, % 7 inguruko merkatu kuotarekin. 9.500 milioi euro inguru kudeatzen ditu, eta Baskepensionesez lider argi izaten jarraitzen du Euskadiko BGAE indibidualetan.

Bultzada honek negozio sareek **Administraturiko Baliabideen** hazkundera eragin du, iazko irailetik % **6,5** igo baitira.

Mailegu-inbertsio produktiboa izan da iaztik hazkundera izan duen beste jardueratako bat, % **4,5ekoa**, korporazioetako eta erakundeetako bankak eraginda.

2020ko lehen bederatzi hilabeteetan, **enpresen alorrak** epe luzeko finantzazioa % **40 igoarazi** du, batik bat Elkargi eta ICOren ildoan babespean bideratu diren **600 milioi euro**engatik. Horrez gain, ETEei, enpresa handiei eta erakundeei **2.600 milioi euro** utzi zaizkie, egoera korapilotsu honetan dituzten beharrei erantzun ahal izateko.

Kudeaketa-eredu sendoa erakusten duten adierazleak

Kutxabankek abiapuntu, ahalmen eta kudeaketa-eredu sendoak ditu osasun krisialdi honek sor ditzaken eraginei aurre-egiteko.

Gainera, alor, giza-talde eta jarduera desberdinei egokitutako estrategia zehatzak finkatu ditu, arrisku-politikak eta prozesuak eguneratuz, krisiaren eragina samurtu asmoz.

Bere zorroak, **berandutzeekiko esposizio maila murrizta** du, hain justu ere alorraren batez bestekoa baino % **50** txikiagoa. Hiruhilekoa amaitzen zuen saldo bizian, berandutzeen bolumena zorro osoaren % 1,7 baino ez zen.

Taldearen **kaudimen osoak** eta Core Tier I ratioak hobetzen jarraitzen dute, eta Espainiako finantza-sistemaren buruan dira, % **17,5ko** indizearekin.

Datu esanguratsuenetako bat berankortasun mailaren hobekuntza izan da, % **2,5eraino** murriztu baita irailaren amaieran. Finantza-alor osoko txikienen artean da, aurten oinarriko **45 puntu** hobetuta. Egoera honek, bere mailegu-zorroaren kalitatea baieztatzen du, finantza-alorreko batezbestekoa baino hobea izaki.

Beste kudeaketa-adierazleetan ere hobekuntzak izan dira. **Palankatze-ratioa % 9,3ra** heldu da, alorraren buruan berriro. Kutxabankek errentagarritasun ratioen bilakaera positiboari eusten dio. **ROTE % 4,8koa** da, eta % **0,4koa ROA**. **Eraginkortasunari** dagokionez, indizea % **52,7an** finkatu da.

Beraz, ziurgabetasunik gabeko egoera honi aurre egiteko oinarri sendoak ditu Kutxabankek kaudimenean. Aktiboen kalitatean maila garaia du, eta merkatuen konfiantza dauka.

Digitalizazioa eta ekonomia berdea

Pandemiak sortutako krisi-egoeran, teknologia berrien erabilerak hazkunde nabaria izan du, batik bat **ordainketa-digitalei** dagokionean, urteko lehen bederatzi hilabeteetan **hirukoiztu** egin baitira.

Duela hilabete batzuk, joera arinak baino ez ziren portaera zehatz batzuek abiada bizian egonkortu dira, esate baterako ordainketa-txartelen erabilera, contactless teknologiekiko lehentasuna, mugikor bidezko ordainketak, e-commerce, edo Bizumen erabilera.

Gaur egun, Taldearen bezeroen % **51,4** lehentasunez online aritzen da. Kontratazio digitalak **kontsumorako mailegu guztien % 30** inguru dira, eta marketing digitalean abiatu dira hedapeneko lurraldeetan sinatu diren hipoteka guztien % 25. Azken batean, estrategia digitalak prozesuen eraginkortasuna hobetu du.

Gainera, ingurugiroa zaintzeko duen konpromisoa indartzeko, ahalegin berezia egiten ari da Kutxabank. Horretarako, **naturarekiko begirunean** oinarritutako finantza-baliabide eta produktu bilduma zabala jarri du merkatuan.

Hain zuzen ere, urteko lehen hilabeteetan, **600 milioi** euro bideratu ditu inguruarekiko eragina murriztu eta ekonomia berderantz trantsizioa egiteko proiektuak dauzkaten **enpresen ekimenak finantzatzeko**.

Gainera, **2.250 Hipoteka Berde** sinatu ditu, **439 milioi** euroko zenbatekoarekin, 2020. urte osoan gauzatu diren hipoteka guztien % **25**. Finantzazio-modalitate honek, energiaren kontsumoaren ikuspegitik, eraginkorragoak diren etxebizitzaren erosketari errazten du.

Horrez gain, **bikoiztu** egin da energia-kontsumoa murriztu nahi duten etxebizitzari emaniko **kontsumorako finantzazioa**, edota ibilgailu elektriko eta hibridoak erosteko edo ordezkotzeko erregaiak bultzatutako ibilgailuak erosteko bideratutakoa.

Kutxabankekin jasagarritasunarekin duen konpromisoa ingurugiroko Proiektuen Kudeaketako Bulego berriaren sorreran ere ikusi da. Honen helburua, finantza-jarduera eta klima-aldaketa doitzen jarraitzea da.

Kontuen emaitza

Emaitzen kontuan, **'Core' sarrerak** % **1,3** jaitsi dira, eta 795,4 milioi eurotan kokatu dira, batik bat interesen marjina **tipoen bilakaerak**, eta komisioetan jardueraren **geldialdiak** izan duten eraginarengatik.

Balantzetik kanpoko produktuen balorazio baxuek **zerbitzuen-sarreraren** ohiko hazkundera oztopatu dute, eta **aseguruek** sortutako sarrerak % **4** hazi dira.

Inbertsio fondoen, pentsio fondoen eta BGAEen gordailuzana Cecabanken eskuetan utzi zen, eta Beste Ustiapen Emaitzak atalean ikus daiteke.

Emaitza ez-errepikari hau mailegu-estaldurak indartzera, eta lehen seihilekoan aurre-erretiroa hartu dutenen kostuak hornitzera bideratu da. Zuzkiduren atala **277,4 milioi** eurokoa izan da honenbestez, iaz garai berean baino **146 milioi** euro handiagoa.

Inbertsio-zorroaren ekarpen errepikariekin eta ustiaketako beste emaitza batzuekin **Marjina Gordina 952,1 milioi** eurora arte goratu dute, % **16,1**eko hazkunderarekin.

Administrazio gastuek murrizten jarraitu dute, % **4,1**, eta amortizazioen atala % **3,5** hazi da, egiten ari diren inbertsio digital garrantzitsuengatik.

Ustiapen Marjina % 45,1 hazi da, eta **478,7 milioi** eurora iritsi da.

Emaitzen fiskalitatea aintzat izan ondoren, Taldearen **etekin trinkoa 160 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **% 40,1** txikiagoa.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2020ko irailean

Milioi euro	2020ko iraila	% Δ
Interesen Marjina	419,7	-1,4
Komisioak eta aseguruak (*)	375,7	-1,1
Banka negozioaren 'core' sarrerak	795,4	-1,3
Dibidenduak eta baliokidetasuna	38,8	14,0
FOE	-3,1	e.a.
Beste Ustiapen Emaitzak (*)	121,0	e.a.
Marjina Gordina	952,1	16,1
Administrazio Gastuak	-431,1	-4,1
Amortizazioak	-42,2	3,5
Ustiapen Marjina	478,7	45,1
Saneamenduak eta narriadurak	-277,4	110,4
Beste irabazi eta galerak	8,5	-92,3
Zergen aurreko emaitza	209,9	-32,1
Emaitzak eta bestelakoak	-50,0	19,5
Taldearen emaitza	159,9	-40,1